



**InclusiPHE**

Inclusive Engagement of Non-Traditional  
Students in Professional Higher Education

**Orientazio-  
dokumentua**



# **Goi-mailako lanbide-heziketan (GLHan) ikasleen inplikazio inklusiboa sustatzeko gomendioak**

## **Egileak**

Iris Kimizoglu, Louis Brau, Marta Rodrigues

## **Kolaboratzaileak**

Agurtzane Martinez, Ane Urizar, Heathcliff Schembri, Idoia Peñacoba, Jon Altuna, Laura Eigbrecht, Manushan Nesari, Monica Gago, Nik Heerens, Ninoslav Schmidt, Ulf-Daniel Ehlers, Yasmine Goossens

## **Editoreak**

Iris Kimizoglu, Louis Brau, Marta Rodrigues

## **Diseinatzailea**

Tara Drev

## **Egile-eskubideak**

(C) 2023, InclusiPHE

## **InclusiPHE partzuergoa**

Mondragon Unibertsitatea	MU	ES
European Students' Union	ESU	BE
European Association of Institutions in Higher Education	EURASHE	BE
Malta College of Arts, Science & Technology	MCAST	MT
Baden-Wuerttemberg Cooperative State University	DHBW	DE
Knowledge Innovation Centre	KIC	MT
University College Leuven Limburg	UCLL	BE
Institute for the Development of Education	IDE	HR

Proiektu hau Europako Batzordearen laguntzarekin finantzatu da. Argitalpen honetan ageri diren ikuspuntuak egileenak dira, eta, beraz, Europako Batzordeak ez du inolako erantzukizunik dokumentu honetan jasotako informazioaren erabileraren gainean.

Creative Commons Attribution-ShareAlike 4.0 International lizentziak babesten du lan hau.



Co-funded by the  
Erasmus+ Programme  
of the European Union



# Laburtzapenak

GHEE	Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua
GH	Goi-mailako hezkuntza
GHE	Goi-mailako hezkuntzako erakundeak
LGBTQIA+	Lesbianak, gayak, bisexualak, transexualak/transgeneroak, <i>queerak</i> , intersexualak edo asexualak
IET	Ikasle ez-tradizionalak
GLH	Goi-mailako lanbide-hezkuntza
GLHE	Goi-mailako lanbide-hezkuntzako erakundeak

# Aurkibidea

Laburtzapenak.....	4
1 Sarrera .....	6
2 Beharrak eta erronkak .....	6
2.1 Kontzeptuak.....	6
2.2 Aurkikuntza nagusiak .....	8
3 Gomendioak.....	9
3.1 Esparru instituzional eta tokikoa .....	9
3.2 Esparru nazionala.....	11
3.3 Europako esparrua .....	11
Erreferentziak .....	12

# 1 Sarrera

Orientazio askoz praktikoagoa dutenez, goi-mailako lanbide-hezkuntzako erakundeak (GLHEak) ikasle-profil berriak ari dira erakartzen. Oro har, ikasle ez-tradizional (IET) deritze ikasle horiei. Ikasle horien inklusioa bermatzeko, beharrezkoa da erakundeek ikasleen aniztasuna islatzea, eta haien beharretara egokitzea egituraren eta kulturaren aldetik. Hortaz, GLHEak gure gizarte aniztasunaren isla berezia dira, *Principles and Guidelines to Strengthen the Social Dimension of Higher Education in the EHEA* (GHEEko goi-mailako hezkuntzaren gizarte-dimentsioa indartzeko printzipio eta jarraibideak) dokumentuan jasota dagoenarekin bat etorritik. Agiri horren arabera, bermatu behar da Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko (GHEEko) herrialdeek heterogeneotasun handiagoz erakustea beren gizartearen profila.

InclusiPHE proiektuaren xede nagusia hau da: GLHE-en politikak, mekanismoak, kultura eta jardunbideak hobetzea, IETen inplikazio inklusiboa lortzeko. Izan ere, GLHE-en ingurunea inklusiboagoa bada, ikasle guztiak gehiago inplikaturiko dira irakaskuntzan eta ikaskuntzan, erakundeen erabakitze-prozesuetan, kudeaketan eta, oro har, ikasle-bizitza orokorrean. Orientazio-dokumentu honen bidez, goi-mailako lanbide-hezkuntzan (GLHan) ikasleen inplikazio inklusiboa sustatzeko gomendioak eman nahi dira, proiektuan zehar ikasitakoa oinarri hartuta. Gomendio horiek ikasle-talde anitz baten beharrak eta gaitasunak sakon ezagutzeko aukera emango diete GLHE-ei, eta ingurune akademikoak hobetzeko eta ikasle guztien inplikazio formal eta informala ahalik eta ondoen bideratzeko estrategiak proposatuko dizkiete.

Txosten honetako hurrengo atalean, proiektuaren kontzeptu eta aurkikuntza nagusiak deskribatuko ditugu. Aurrerago, 3. kapituluan, ikasleen inplikazio inklusiborako gomendio batzuk aurkeztuko ditugu, bereziki GLHaren sektoreari zuzenduak.

## 2 Beharrak eta erronkak

### 2.1 Kontzeptuak

**Ikasle ez-tradizional**<sup>1</sup> terminoa zabal erabiltzen da goi-mailako hezkuntzaren (GHaren) testuinguruan. Gure txostenean (*Stronger Together Towards inclusive student engagement of non-traditional students in Professional Higher Education Needs assessment for students' engagement non-traditional students in PHE*) erabilitako iturrien arabera, IETek askotariko ezaugarriak izan ditzakete hainbat alderditan: adina; etnia; generoa; larruzalaren kolorea;

---

<sup>1</sup> Proiektuan zehar, esamolde hori hainbat ikasle-kategoria barne hartzeko erabili da. Askotan, batera aipatzen dira kategoria horiek guztiak, nahiz eta ezaugarri espezifikoak izan (proiektuan aurrerago azalduko dugunez).

jaioterria; gaitasun fisiko, mental eta emozionalak; erlijioa; hizkuntza; arraza; sexu-orientazioa, eta egoera sozioekonomikoa. *Principles and Guidelines to Strengthen the Social Dimensions of Higher Education in the EHEA* txostenean, ikasle-taldearen sailkapen zabalagoa ematen da, IET kontzeptua hobeto ulertzen laguntzeko. Hiru IET mota bereizten dira:

1. **Ordezkaritza txikiko ikasleak.** Ezaugarri jakin batzuk (generoa, adina, nazionalitatea, jatorri geografikoa, aurrekari sozioekonomikoak, gutxiengo etnikoak eta abar) kontuan hartuta ikasle-talde baten proportzioa biztanleria osoaren talde konparagarri batena baino txikiagoa bada<sup>2</sup>, ordezkari txikiko ikasleak hartzen dira. Maiz, ezaugarri horietako bat baino gehiago izaten dituzte ikasle horiek. Halaber, ordezkari txikiko ikaslearen sailkapena testuinguruaren eta GHaren mailaren mende dago.
2. **Gizarte-egoera ahuleko ikasleak.** GHko berdinekin alderatuta erronka jakin batzuei aurre egin behar dieten ikasleak dira. Erronkak hauek izan daitezke, besteak beste: urritasunak, familia-sarrera txikiak, familia-laguntza txikia edo ezereza, zurruntasuna, eskola-lekualdaketa ugari, osasun mentala, haurdunaldia eta ikasteko denbora gutxi izatea<sup>3</sup>, lan- edo zainketa-kargen ondorioz. Denboraren alderdia desabantaila partzialki iraunkortzat hartu behar da, partzialki ager edo desager baitaiteke. Gizarte-egoera ahulean dagoen ikasleak ez du zertan ordezkari txikiko ikaslearen taldekoa izan.
3. **Ikasle kalteberak.** Gizarte-egoera ahuleko ikasleak dira, baina, gainera, berariazko erronkak dituzte eta arreta berezia behar dute. Adibidez, diskriminazio-arriskuan dauden, gaixotasunak edo urritasunak dituzten eta bizileku-baimenari eusteko ikasketak arrakastaz gainditu behar dituzten ikaslearen kasua da. Ikasle horiek ikasle kalteberen kategorian sartzen dira, ongizatea ez dutelako beti bermatuta eta laguntza gehigarria behar dutelako<sup>4</sup>.

Horrenbestez, esan daiteke etengabe aldatzen den talde heterogeneoa osatzen dutela IETek. Hala ere, proiektu honen testuinguruan, hauek hartzen dira IET-tzat: ikasle- edo erakunde-komunitatean baztertuta sentitzen diren edo ikasketetan erabat inplikatzeko aukerarik ez duten ikasleak.

**Ikasle inplikazioari**<sup>5</sup> dagokionez, proiektuaren ikerketak erakutsi du askotarikoa izan daitekeela formari eta dimentsioari dagokionez. Dena den, bereziki ikasleek zuzendutako erakundeetan jarri du proiektuak arretagunea, eragile politikotzat eta laguntzailatzat hartzen baititu GHaren egiturak diseinatzeko prozesuen baterako sorkuntzan. Testuinguruaren arabera, ikasleek gidatutako hainbat erakunde-mota daude:

---

<sup>2</sup> EHEA (Ed.). Rome Ministerial Communiqué: EHEA Rome 2020. 9. or. [http://www.ehea.info/Upload/Rome\\_Ministerial\\_Communique.pdf](http://www.ehea.info/Upload/Rome_Ministerial_Communique.pdf)

<sup>3</sup> EHEA (Ed.). Rome Ministerial Communiqué: EHEA Rome 2020. 9. or. [http://www.ehea.info/Upload/Rome\\_Ministerial\\_Communique.pdf](http://www.ehea.info/Upload/Rome_Ministerial_Communique.pdf)

<sup>4</sup> EHEA (Ed.). Rome Ministerial Communiqué: EHEA Rome 2020. 9. or. [http://www.ehea.info/Upload/Rome\\_Ministerial\\_Communique.pdf](http://www.ehea.info/Upload/Rome_Ministerial_Communique.pdf)

<sup>5</sup> Proiektuak ikasle inplikazio-modu guztiak biltzen ditu; besteak beste, ikasle erakundeetan edo kalitatea bermatzeko jardueretan parte hartzea, beren jarduera akademikoaren barruan. Nolanahi ere, onartu egiten da ikasleak buru dituzten erakundeek funtsezko zeregina dutela ikasle inplikazioa sustatu eta bideratzeko.

- Irakaskuntzarekin edo hezkuntza-programarekin lotutako erakundeak. GHko erakundeek sindikatuak edo ikasle-kontseiluak dituzte, beren esperientzia akademikoarekin lotutako arazoetan ikasleak ordezkatzeko. Orobat, programa akademikoetan ere ikasleek zuzendutako erakundeak egon daitezke, eta askotariko jarduerak antolatzen dituzte hainbat arlotan (soziala, politika, kultura eta kirola), ikasleek aukera izan dezaten ingurune akademikoaren barruan zein kanpoan biltzeko.
- Xede gisa publiko jakin bat edo zaletasun bat duten erakundeak. Zaletasun edo xede-publiko bera duen ikasle-talde batek erlazionatutako jarduerak antola ditzake, hala nola zinema- edo irakurketa-klub bat, LGBTQIA+ ikasleen talde bat eta, Leuven-Limburgeko Unibertsitatean bezala, futbol-talde bat.

GLHE-entzat diseinatutako online tresnan<sup>6</sup>, proiektuaren partzuergoak bost kategoria jaso ditu, IETen inplikazioaren ebaluazioa gidatu eta bideratzeko. Hona hemen kategoria horiek: gobernantza eta kudeaketa, kalitatea bermatzeko prozesuak, ongizate- eta partaidetza-prozesuak, irakatsi eta ikasteko estrategiak, eta sarbide-estrategiak. Gainera, ikasleen sindikatuentzako online tresnan sartutako hiru kategoriek<sup>7</sup> ikasleek egituretan duten inplikazioaren ebaluazioa osatzen dute. Hauek dira hiru kategoriok: gobernantza eta kudeaketa, ongizatea eta parte-hartzea, eta irisgarritasuna eta inklusioa.

## 2.2 Aurkikuntza nagusiak

InclusiPHE proiektuan egindako ikerketak agerian utzi du IETek erronka edo oztopo hauek gainditu behar dituztela inplikazioa lortzeko:

- Denbora: ikasketen finantzaketa (denbora versus dirua); epe luzeko konpromisoa hartzeko beldurra (nazioarteko mugikortasun-programetan edo praktika-programetan parte hartzeko zailtasuna), eta lan-karga eta karga akademikoa bateragarriak ez izateko beldurra.
- Agerikotasuna: emaitzetan ez agertzea edo aldatzeko aukerarik ez izatea, eta zereginei edo parte hartzeko aukerei buruzko informaziorik ez izatea.
- Identifikazioa: ez du loturarik norberaren erronkekin, eguneroko bizitzarekin edo nortasunarekin; ikasleen irudikapena estereotipatua da (esaterako, programako edo ikasturteko materialetan); trebetasun egokiak ez izateko beldurra, eta segurtasunik eza.
- Irudia: interesik ez joko politikoetan eta rol espezifikoetarako hautaketa-prozesuetan, eta alkohol-kontsumoaren kultura sustraitua duten ikasleen elkarreak.
- Irisgarritasuna: hizkuntza-oztopoak eta mugikortasun-oztopoak<sup>8</sup>.

<sup>6</sup> [https://inclusiphe.eu/assesst\\_fpage/](https://inclusiphe.eu/assesst_fpage/)

<sup>7</sup> [https://inclusiphe.eu/assesst\\_fpage/](https://inclusiphe.eu/assesst_fpage/)

<sup>8</sup> Ikasle ez-tradizionalen erronka edo oztopo nagusiak zehazteko metodologiari buruz gehiago jakin nahi izanez gero, ikus: *Stronger Together Towards inclusive student engagement of non-traditional students in Professional Higher Education Needs assessment for students' engagement of non-traditional students in PHE* (<https://inclusiphe.eu/mapping-report/>).



# 3 Gomendioak

Proiektuaren aurretiko fasean, potentziala eta beharrak aztertu ditu partzuergoak. Azterketa hori hurrengo kapituluetan ere hartu da kontuan. Proiektuan zehar ikasitakoa aintzat hartuta, jarraian ikasleen inplikazioa sustatzeko azalduko ditugun gomendioak GLHaren sektoreari zuzenduta daude bereziki. Ildo horretatik, GLHE-en inguruneak hobetzeko estrategiak emango ditugu, gai izan daitezen ikasleak parte-hartze formaleko eta informaleko prozesuetan inplikatzeko ahalik eta ondoen sustatzeko. Gomendioak esparru hauetakoak dira: instituzionala eta tokikoa, nazionala eta Europakoa.

## 3.1 Esparru instituzional eta tokikoa

### Laguntza-sistema

IETen parte-hartzea hobetzeko, ezinbestekoa da ikuspegi sakona izatea, ikasketetan berariazko erronkei aurre egin behar dieten pertsonen eraginkortasunez lagundu ahal izateko. Horretarako, laguntza-sistema sendoa ezarri behar da, ikasleen beharrak identifikatu eta aseko dituen. Hortaz, finantza-laguntza ez ezik, aholkularitza-zerbitzuak ere jorratu behar ditu sistema horrek; besteak beste, bekei, laguntzei, lan-eskaintzei eta lan-eskaintzetan parte hartu ahal izateko prestakuntza-ikastaroei buruzko aholkularitza eta informazio espezifikoa. Ikasle horiek eskura izan beharko lituzkete laguntza-baliabide horiek; izan ere, campusean bertan lortu beharko lukete horiei buruzko informazioa. GLHE-ek sarbide unibertsala bermatzeko ardura dute. Are gehiago, ikasleek mentoretza-programetan —eta ikasle berriak hartzeko jardueretan— parte har dezaten sustatzea funtsezkoa izan daiteke IETen estigma kentzeko. Halaber, ezinbestekoa da ikasle horiek beren hezkuntza-ibilbideetan izaten dituzten arazoak eta oztopoak identifikatzea eta lantzea.

Era berean, behar-beharrezkoa da diseinu unibertsaleko printzipioak erabiltzea, gune fisikoak, garraioa, komunikazioa, informazio- eta komunikazio-teknologiak, gune birtualak eta beste zerbitzu batzuk baldintza beretan egon daitezen komunitateko ikasle guztien eskura, baita ikasle ez-tradizionalen eskura ere.

### Parte hartzeko aukerak

Pertsona bakoitzak esperientzia akademikoan ahalik eta inklusiorik handiena lor dezan, funtsezkoa da ikasleak inplikatzeko guneak edo aretoak izatea, ikasleen sindikatuentzako topaguneak barne hartuta. COVID-19aren pandemian, aurrez aurreko bilera eta jarduera asko online plataformen bidez egin ziren. Hala ere, garai hartan aurkitutako soluzioetako asko baliagarriak dira gaur egun, eta etorkizunerako ere bai. Horrek ez du esan nahi inplikazioa modu birtualean gauzatu behar denik; baizik eta, esparru fisikoaren eta digitalaren arabera komenigarria bada, ingurune birtualak ikuspegi erabat inklusiboa ahalbidetu dezakeela.

Gainera, kontuan hartu behar da inplikatu nahi duten ikasleetako batzuek arazoak izaten dituztela denboraren aldetik. Ikasle horien parte-hartzea sustatu nahi bada, ezinbestekoa da iraupen txikiagoko zereginak eta ekimenak proposatzea, gai baten inguruan, epe ertain edo

luzeko konpromisoa behar duten jardueren orde. GHko erakundeek lagundu egin behar diete ikasleei ikasle-sindikatuak proposatzen dituzten jardueretan parte hartzen. Halaber, zenbaitetan, batera garatu ahal izango dituzte jarduera horiek.

### **Ikasleek gidatutako erakundeen eta ikasle ez-tradizionalen arteko harreman-guneak**

Ikasle iritsi berrientzat elkargune sozial bat izatea da ikasleek zuzendutako erakundeen zeregin nagusietakoa, batik batik unibertsitatean lehen aldiz sartzen diren pertsonen kasuan. Ikasleek gidatutako erakundeek proposatzen dituzten ekitaldiak aukera ezin hobekak dira ikasleek elkar ezagutzeko, direla hezkuntza-erakundeak, direla kanpokoak, eta harreman-sarea ezartzeko. Ekitaldiak eta jarduerak ikasle guztientzat —IETentzat ere bai— direla bermatzeko, ezinbestekoa da ekitaldi eta jarduera horien irismena zabaltzea, eta ikasleek gidatutako erakundeen eta IETen arteko harremana sendotzea. Horrenbestez, unibertsitateek eta ikasle-sindikatuak elkarlanean jardun beharko lukete, bermatzeko ikasle guztiek dutela alderdi interesdunek eskaintzen dituzten jardueren berri.

### **Irakasleen prestakuntza eta ikasleen beharren inguruko kontzientziarioa areagotzea**

Irakasleen eta administrazioko langileen hasierako prestakuntzak eta lanbide-prestakuntzak GHaren gizarte-dimentsioari eta IETen beharrei buruzko prestakuntza hartu behar dute barne; izan ere, ikasle horien lehen kontaktua izateaz gain, erakundeetako kontaktu nagusiak ere badira. Beraz, funtsezkoa da ikasleen askotariko beharrak ezagutu eta ulertzea, arlo akademikoa gaindi baitezakete. Egoerak eta beharrak konplexu samarrak —are intersektionalak ere— izan daitezkeenez, oso garrantzitsua da hezkuntzako zein administrazioko langileek IETen behar partikularrak ulertzea. Ildo horretan, ongiatorri zintzoa eman diezaioke ikasgelako pertsona bakoitzari, baldin eta erakundearen kulturak parte hartzeko eta inplikatzeko jarduera horiek bultzatzen baditu.

### **Ikasleentzako konpentsazioa eta ikasleen inplikazioa curriculumean sartzea**

Ikasleen inplikazioaren balioa izugarri handia dela onartzeko, erakundeek hainbat modutan hobetu behar dute parte hartzeko aukera. Ikasleei jarduera horiek egiteko denbora aurkitzen laguntzeko, garrantzi handiko bide bat dago: ikasleen inplikazioa curriculumean sartzea edo kredituak ematea, edozer gertatzen dela ere hezkuntza-esparruan edo kanpoan. Bestalde, diru-esleipenak garrantzitsuak dira ikasle jakin batzuentzat, parte hartzeko aukera handitzen dute eta —bestela, lanean egongo lirakeke—. Neurri horiek jardueretako interesa areagotzeko balioko lukete, eta, horrez gain, inplikazioaren jarraitutasuna bermatzeko. Horri esker, ikasle-sindikatuak edo GHko erakundeak egitura demokratikoetan parte hartu nahi duten ikasleek ez lituzkete ikasketak aldi baterako baztertu behar; izan ere, parte-hartzeak graduazio-prozesua bizkortuko luke.

Labur esanda, GLHE-ek hainbat neurri hartu behar dituzte. Neurriak instituzionalak izan beharko dira, hala nola ikasleei aholkularitza zehatza ematea edo haurrak zaintzeko gune bat ezartzea, bai eta nazio-mailakoak eta nazioartekoak ere.

## **Aniztasunaren agerikotasuna**

IETen estigma edo bazterketa saihesteko eta GHan aniztasuna sustatzeko, ikasleek bisualki irudikatuta egon behar dute; esaterako, publizitate- edo sustapen-materialetan. Orobat, funtsezkoa da ikasle-erakundeek benetan ordezkatzera ikasle guztiak, ordezkaritza garrantzitsua baita.

Erreferentzia-ereduez eta abarrez gain, prestakuntza eta laguntza eman behar zaizkie ikasleei, beharrezko ezagutza eta trebetasun praktikoak eskura ditzaten, eta motibazioa sustatzeko edo norberaren konfiantza handitzeko.

Ikasleen inplikazioa ahalbidetzeko bitartekoak behar dira; besteak beste, ikasleek denbora izan behar dute, ikasketetarako edo beste betebeharrak batzuetarako —hala nola seme-alabak edo beste senide batzuk zaintzeko— denboraz gain, eta laguntza ekonomikoa ere eman behar zaie, lan ordaindura jo beharrik izan ez dezaten, adibidez.

## **3.2 Esparru nazionala**

### **Ikasleen aniztasuna eta laguntza-beharra onartzea**

Ikasleentzako beste laguntza-mota batzuekin batera, herrialdeetako GHaren arloko politikek finantza-laguntza eman beharko liekete ikasleei, bai eta haien inplikazioa arautu eta irakasleek eta administrazioko langileek inplikazio hori sustatzeko gutxieneko baldintzak ezarri ere. Beraz, GHko politika nazionalak ikasleen kategoriak eta aurrekariak hartu behar dituzte kontuan, esparru instituzionaleko inplikazioa ahalbidetzeko. Are gehiago, politika horiek gutxieneko estandar batzuk ezarri beharko lituzkete hezkuntzako langileek ikasleen inplikazioa susta dezaten.

## **3.3 Europako esparrua**

### **Ikasle-erakundeen mailen arteko harreman-sareak indartzea**

Ikasleak hainbat mailatan inplika daitezke: tokian, eskualdean, estatuan, Europan eta nazioartean. Oro har, ikaslerik gehienak, baita ez-tradizionalak ere, harremanetan egoten dira tokiko ikasle-erakundeekin. Hala ere, esparru zabalagoen arteko harremana indartu eta mantendu behar da, ikasleen ordezkarien eta IETen arteko *feedbacka* hainbat esparrutan handitzeko eta IETen inplikazioa maila guztietan sustatzeko. Europako ikasleak ordezkatzeko dituzten elkarteez sinergia horiek bultzatu behar dituzte, eta benetako eragina sortu, esparru instituzionalean eta nazionalean, ikasle-komunitatea konprometituagoa eta inklusiboagoa izan dadin.

### **IETen inplikaziorako jarraibideak**

GHEEko egiturek eta Europan politikak diseinatzeaz arduratzen diren beste alderdi batzuek IETen inplikazioa sustatu behar dute, Europan IETen parte-hartzea harmonia eta

sistematikotasun handiagoz bideratuko duten politikak eta jarraibideak ezarriz. Jarraibide horiek alderdi interesdun guztien ahaleginaren bidez landu beharko lirateke.

# Erreferentziak

EHEA (Ed.). *Principles and Guidelines to Strengthen the Social Dimension of Higher Education in the EHEA. Rome Ministerial Communiqué: EHEA Rome 2020.* [http://www.ehea.info/Upload/Rome\\_Ministerial\\_Communique.pdf](http://www.ehea.info/Upload/Rome_Ministerial_Communique.pdf)

EHEA (Ed.). *Rome Ministerial Communiqué: EHEA Rome 2020.* [http://www.ehea.info/Upload/Rome\\_Ministerial\\_Communique.pdf](http://www.ehea.info/Upload/Rome_Ministerial_Communique.pdf)

InclusiPHE (Ed.). *Stronger Together Towards inclusive student engagement of non-traditional students in Professional Higher Education Needs assessment for students' engagement of non-traditional students in PHE'*. 2021. <https://inclusiphe.eu/mapping-report/>

## About the InclusiPHE Project

For a Professional Higher Education Institution (PHEI) to be truly inclusive, it needs to reflect its diverse range of students. To achieve this, a PHEI should not just consider its study programmes and teaching & learning processes, but also aim for fully inclusive student engagement. Student engagement not only relates to student activism and student involvement in decision-making bodies, but also to the structures and practices of students' organisations themselves.

All of these elements of student engagement do not fully reflect the diverse student community in a PHEI and can be difficult to access for non-traditional students and underrepresented student groups.

The InclusiPHE project intends to contribute to a more inclusive student environment by raising awareness for full student inclusion and providing PHEIs and their students' organisations with concrete ideas, tools and guidance on how to make student engagement fully inclusive.

## InclusiPHE proiektuari buruz

Goi-mailako lanbide-heziketako erakundeak (GLHEak) benetan inklusiboak izateko, ikasleen aniztasuna islatu behar dute. Hori lortzeko, hezkuntza-programak eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak ez ezik, GLHE-ek kontuan hartu beharko dute ikasleen inplikazio erabat inklusiboa ere. Ikasleen inplikazioak hauek hartzen ditu barne: ikasleek erabakiak hartzeko erakundeetan duten aktibismoa eta inplikazioa, eta ikasle-erakundeen beraien egitura eta praktikak.

Beharbada, ikasleak inplikatzen mekanismo horiek guztiek ez dute erabat islatzen GLHE-etako ikasle-komunitatearen aniztasuna, eta, beraz, ikasle ez-tradizionalek edo ordezkari txikiak duten ikasleek zailtasunak izan ditzakete mekanismo horiek erabiltzeko.

InclusiPHE proiektuaren bidez, ikasle-ingurune inklusiboak sortzen lagundu nahi da. Horretarako, ikasle guztien inklusio sakonaz ohartu beharra dago, eta GLHE-ei ideia zehatzak, tresnak eta gidak eman, ikasleen inplikazioa erabat inklusiboa izan dadin lortzeko.



Co-funded by the  
Erasmus+ Programme  
of the European Union